

Añarbeko presaren

LARRIALDI-PLANA

PLAN DE EMERGENCIA

de la Presa de Añarbe



Añarbeko presaren datu nagusiak

Presaren Errenteria eta Goizueta udalerrien artean dago, Añarbe ibaiaren gainean. Urtegiaren arroaren azalera 62,9 km²-koa da.

Presaren altuera:	79,5 metro
Luzera:	255 metro
Presaren tipologia:	Grabitatea
Urtegiaren edukiera:	37.279.625 m ³
Gauezkabidea:	3 uhate
Beheko hustubidea:	2 hodi
Abiarazte-data:	1977

UHOLDE-MAPA



Indarrean dagoen araudiaren arabera eraiki eta erabiltzen diren presen akatsengatiko arriskuak oso txikiak dira. Hala ere, presa bakoitzak Larrialdi Plan bat du, edozein gorabeherari erantzuteko aurrez zehaztutako eta zorrotz aztertutako jarraibideetan oinarritua.

Larrialdi Planek salbuespenezko egoerek eragin ditzaketen gorabeherak identifikatzen dituzte, hala nola ezohiko euriteak, lurrikarak edo sabotajeak. Halaber, ibaian behera dauden herritarrentzat izan litezkeen ondorio larrienak aztertzen dituzte, eta horiek prebenitzeko edo haien eragina arintzeko neurriak zehazten dituzte.


LARRIALDI-PLANAREN HELBURU NAGUSIAK

- Uholde-arriskuan dauden eremuetako biztanleei benetako arriskuaren inguruko informazio zehatza ematea.
- Uholdeen kasuan modu koordinatuan jarduteko oinarrizko jarraibideak ezagutzen direla ziurtatzea.
- Uholde-simulakroetan pertsona guztiek modu eraginkorrean parte har dezaten sustatzea.

Alerta-sirena entzuten baduzu, JAKIN zer esan nahi duen eta JARDUN dagokion moduan:



Noiz eta nola abisatzen zaie herritarrei?



ALERTA-SEINALEA

Alerta-seinalea bi segundoko soinu-igorpenen sekuentzia da, bost segundoko isiluneek bereizita. Gutxienez bi minutuko iraupena izango du, eta egoeraren arabera, hainbat aldiz errepikatu daiteke.

ALERTAREN AMAIERA-SEINALEA

Hogeita hamar segundoko soinu-igorpen jarraitua izango da, eta hainbat aldiz errepikatu daiteke.

Presak egoera etengabe monitorizatzen ditu, baita gainezkatzeko, matxura edo haustura-arriskuak aurreikusteko sistemak ere.

Arazo larriren bat hautemanez gero, eta haren konponbidea erabat segurua ez bada, agintariek uholde-arriskuan dauden eremuak osorik edo zati batean ebakuatzeko agindua eman dezakete. Herritarrak ohartarazteko, ohiko komunikazio-bideak erabiliko dira, hala nola megafonia, komunikabideak, testu-mezuak eta antzekoak.

Sirenak presaren haustura berehalakoa denean edo dagoeneko hasi denean soilik aktibatuko dira. Halako egoeretan, biztanleria premiaz ebakuatu beharko da, ur-maila bat-batean eta nabarmen igo daitekeelako.

Nola jokatu behar da?

Sirenak entzuten badira, oso litekeena da uholde bat gertatzea edo berehala izatea, bai ibaian behera, bai ibaian gora, Añarbe ibaiak Urumearekin bat egiten duen tokitik.

Beraz, honela JARDUN:



Urrundu berehala ibai eta erreketatik.



Joan zaitez ahalik eta **gune altuenetara.**

